

Hizkuntz normalizazioa eta politika

JOAN MARI TORREALDAI



HAUTESKUNDE- kanpainan daude Catalunyan. Eta hizkuntzaren normalizazioak badu protagonismorik politikarrien ahotan.

Ez, ordea, hemen bezela, dena auzitan jartzeko, aurrera-pausuak proposatzeko baizik. Proposamen konkretuen artean daude, adibidez, katalan hizkuntzako beste lurraldeekin komenioak egitea (hemen Nafarroa eta Iparraldearekin, kasurako), lurralde hauekara telebista katalana eta irrati publikoak hedatzea. Canal 33 delako telebista kultural bilakatzea. Telebista espainoleko bigarren katea (hemengo *Telenorte*) osoki katalanez jarzea, albiste-agentzia bat katalanez sortzea, etabar, etabar.

Eta ez dute auzitan jartzen hizkuntz normalizazioaren premia eta prozesua. Prozesu hori buruztea, horra auzia.

Euskal Herrian, aldiz, ez dugu hauteskunde-kanpainaren beharrik hizkuntz normalizazioak protagonismoa izan dezan. Gehiegia eta zentzu txarrekoa du aspaldi honetan. Hauteskunde-kanpainarik gabe ere BEHERAPENETAN jarri digute euskara: *ETB ikastolak, berreuskaltzea*, hau da. Gasteizko Gobernuak 80an indarrean jarritako kultur eta hizkuntz politika auzitan dago, non eta Gobernuan bertan.

Konturatzan al da Eusko Jauriritza zein esanguratsua eta grabea den hori? Alegia, ez zuk eta nik, politikoki oinezkoak, auzitan jartzea hizkuntz politika, baizik eta gobernuakideek bereak? Hizkuntz politikan halako etena egonik ere, zaitu gabe jarraitzen badu Gobernuak, ez du asko balio euskarak. Beraientzat behintzat!

La Cornisa Cantabrica

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



IZEN hori eman diote sozialista jaun txit argiek, hasi Euskaditik eta Galiziako itsasalde atlantiarrean amaitzen den lur zatia. Hori horrela izan da, arestian eratu dute bilkura propagandistikoan. Euren helburua, diotenez, Kantauri itsasoak ukitzen dituen herrialdeetako egoera industrial aztertea ei zen.

Sozialistak —edozein oinezko bezala— libre diren, euren nahi duten eran eta hoberen datorriekin lekuan batzeko. Baina, oinezko gutziaz belaxka, kamur igertzen zaie nondik nora doazkien tiroak, ohizko argazkia ateratzen. Oraingoan ere, ez dute disimilatu ahal izan eta telezuzenketaren birtate, zirkoiari soberan zaizkion ipot eta ekilibristen gaineko pontifikapena zerbitzatu digute, ongi orkestraturiko aurkezpen baten ondoren.

Mendiaga (Xabier) adixkideak. Damio Kis idazle yugoslaviarraren hausnarketa batzu irakurri zizkidano, lehengoan: «abertzaletasuna, paranoia kolektibo eta individuala da. Kolektiboa den adetik, inbidia eta beldurra dira eragilerik zuzenenak, kontzientzia indibiduala galararen ostean». Nik ez dut uste, espainiar nazionalistak inbidiaz ibiliko direnik. Tinko euren irizitza —boteretik aberastasunera— gai dira beste edozein lehiakide bidetik baztertzeko, helburuak dena justifikatzen baita. Beldurra liteke haien egituraren har suntsikorra. Eta, noski, denok dakigunez, beldurtiak dira animaliarik arriskutsuenak. Kontuz, beraz, horiekini!

●EL PAIS

Demokratak eta HB

Lehenik HBren eskariaren atzean zer ezkutatzen den aztertu beharra dago. Denbora irabazi eta isolamenduko bere egoera apurto, edo abalemaile bat eduki nahi duen ETArekin lokarriak apurtzeko. Posibilitate gutxi daude azken horretarako. Baina horrela izango balaiz, bere portaera ez zen bestelakoa izango. ETArekin duen harremana dela medio. Hori da argudio nagusia, ez baztertzeko erabat EAJK baduela Herri Batasunaren gonbitea onartu izana justifikatzen duten daturik.

EDITORIALA


●DEIA

HBk hesia hautsi nahi du

HBkoek, bestealde, jakin behar dute harremanak iragaritzeak, hasteak eta sakontzeak

HEMEROTEKA

TASIO



TASIO / EGIN

ere ez duela baldintzatuko inoren politika antiterrorista. Harremanek ez dutela abangoardia armatuaren 'ekintza armatua' ekarri behar ulertu eta onartzen dutenek ez lukete zailtasunik izan behar hori ulertzeko.

SANTHI LARRAÑAGA

●EL MUNDO

Atzera botatako salaketa

Atzera botatako salaketan fenomenoaren azalpen justifikatua (fenomenoaz dihardut, ez kasu zehatzetat) izan daiteke emakumeak presionatu egiten

MARIANO FERRER

●ABC

Anbiguotasunaren artea

Orain hobeto ulertzen da zergatik Frantziak ez duen Artapalo atxilotzen eta ETArekin

amaitzen. Besterik gabe, litekeena da oso Madrilko Gobernuari ez interesatzea 'erreferente negoziatzailea' galtzea. Gai ez dela polizi zein politika bidez talde horrekin amaitzeko, amnistizio baten onura gorde du, kapitulazio baten modukoa nabardura batzuzekin.(...)

Zeinen aurrean gaude: ETArekin suten estrategikoaren aurrean edo krimenak arearagotzearen aurrean, horrela mahai gainean 'argudio' gehiago jartzeko?. Dena da posible. Dena, zera ezjak. Gobernuak ez uste izateko negoziatzaia jadanik baliabiderik gorena dela. 1992 zoriotsua.

LORENZO CONTRERAS

LUZENDARIARI

Tafalla eta Tuteran

Inaki Perurena Leitzarrak aurkezten duen 'Herriko Plazan' saioan agertu berri diren bi herriko pertsonaien inguruan, nire iritzia euskaltzale orori igorri nahi nioke.

Harrijasotzailearen saioan parte hartu berri duten Tafalla eta Tuterari buruz ari nartzai-zue. Badute bai 'euskaldun joto' horiek aipamen beharrik: Txapela kentzekoa bait da hasiera bateko lau haurrei ikastola moldatzea, eta gaur egun hirurogeitamaren bat ikasleri zerbitzua eskaintzea. Ordagokoa bait da, denok probatu dugun, errazbidea baztertu eta bai Euskara bai Euskal Kulturari modu aktiboki horretan itsasi eta aupada ematea. Txalagarria bait da Erriberan euskararen alde sutsu dabilzan erakundeen lana.

Pertsonai horietatik dira euskaldunon nortasuna gure hizkuntzan dagoela pentsatzen dutenak, eta kontzientziaturik, gainera. Kontzientziaturik honetan dago herriaren identitatea berreskuratzea, euskaraz jabetzen legunduko diguna.

Aupa bada Erriberako euskaltzaleak, baduzue ta meriturik!

K. GOÑI

Etxarri Aranatz (Nafarroa)

Injusto bati gutun irekia

Sasi-balorez eta euskaltzale ikoneoz zerbait idaztekoan, eredu ederrena Argentinako Justo del Puerto de la Altura jauna da; aspalditik aspertzan nau baskofilo horrek. Gogoratzen naiz Andima, Mirande ta hiruroen aintziñako hasarrez, doktor honen erdalerkiak irakurtzen genituenean, ezen geu nekez eta Parisen euskararen ikasten eta idazten genbiltzanean, hura, hainbeste maite duen 'praktikotasunaren' izenean, espainolkeriak gaztelaniaz idazten jarduten zen. Laister sendakuntza-doktor zena eta ez zela linguistikaren ezer konturatu ginen, baina holako ereduak bigabostentzat kaltegarria izan da. Alemana ondo irakurtzen, itzultzen eta idazten zuela, 'apalki' erakusten zigularik, euskaraz ezer ez zuten idazten, nahiz Arestik dei egintzian. Beraz normalki eritzi emateko eskubidea baldin badu, haizu bekigu gizon horrena ez jarraitzea eta goizero egiten duguna bezala eriztea.


Bai honelako Pituxa badator esanaz 'h'ak euskara desegintzen duela (nahiz bere gaztelania maitearen eraginaz den hegoaldean gertatu) eta Ertaroko gauza dela, bere ezjakintasuna erakutsiz, ezen gure familiar eta neronek letra hori ahozkatzen baitugu. 'H' hori XVI mendean guttiernik hasita, Iparraldean idatzi

da. Hegoaldean Kastillaren ganako lealtasunaz zuen arbasoek 'español' idazten zutelarik. Zer ba, ta zelan egon behar genuen 'h' barietateko euskaraz urtean 3 liburu itzaroten, eta zeuk nazionalista eusko zaharrok gure hizkuntza ez erabiliz erdal kultura egiten zenuenean. Ez duzue gaur-hain antzuak, euskal zikiratuak zinetenak eta geuk ehundaka liburu euskara batuan ematen ditugularik-holako telekeriak esateko biderik, ezen ez aintzizia, ez orain ez baiduzue ez euskaraz idatzi, ez euskaraz irakurri eta irakurtzen, horregaitik merezi duzun bezala zure 'gaztelania maitera' itzuli dizut duteira.

Parregarriena da, zelan ez duzun zeure burua ikusten, diozunean «Egiten duenetik ez esaten duenetik neurtu behar da gizona». Zeuk egin duzuna gaztelaniaz baita, nerretzat sendagile espainola izango zara. Agian, itaunari erantzun bazen, jakingo genuen zeure sendagile lanaren garrantzia zein izan zen, baita gazte garaiko nazionalista horrek benetan 'zer egin zuten', baina nerretzat eta guretzat herbesteratuko aberztale ta euskaltzaleak, Martin Ugalde eta Andima Iñifagabebitia izango dira, eta zeu bezalakoek, euskara zekitelarik euskara traditu dutenak.

TXOMIN PEILLEN
Santa Grazi (Zuberoa)

GAIA JARRITA



Martxoak 8

Gizonak beti nagusi dira guri esklabutasuna hasieratik jasan beharra egoera txit iluna baina bidea garbituz doa nahiz izan bide astuna martxoak 8 ospa dezagun emakumeon eguna ez dugu gauza handirik eskatzen soilikan berdintasuna.

ESTITXU AROZENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JUAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkariek: JOXE MIEL ZUMALABEA

Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIAN ETXEZAHARRETA INAKI URUA

Publikitateak: KORNELJO ROTETA

Egunkaria

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioiak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egortza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / Telef: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irritzi dorrea) / 31011 Iruñea / Telef: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / Telef: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / Telef: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11